

RSC ETA MEMORIA JARDUERA ELIKA Fundazioa - 2025 -



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Aurkibidea

A. Zuzendaritzaren Gutuna

B. 2025. urtearen laburpena

1. ELIKA Fundazioaren izaera

- a. RSC politika
- b. Gobernu-organoak
- c. Aliantzak eta interes-taldeak
- d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak
- e. Kudeaketa Aurreratuko Eredua

2. Kultura Estrategikoa

- a. Misioa
- b. Ikuspegia
- c. Baloreak
- d. Helburu Estrategikoak
- e. Plan Estrategikoa 2025-2028
- f. Jardueren laburpena

3. Dimentsio Ekonomikoa

- a. Balioa handitzea
- b. Balantzea eta kontuak

4. Dimentsio soziala

- a. Aditu-taldea
- b. Gizartea eta ingurunea

5. Ingurumen-dimentsioa

- a. Ingurumenarekiko konpromisoa
- b. Ingurumen-jarduna

6. Etorkizuneko erronkak

A. ZUZENDARITZAREN GUTUNA

ELIKA Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 2001ean, Elikagaien Segurtasuna hobetzen laguntzeko; izan ere, kontsumitzaileentzat, eta, oro har, gizartearentzat oso alderdi garrantzitsua da. Garai hartan behar jakin bati erantzun behar zion, zehazki, behi eroen krisiari. Arrazoi horrek zalantzan jarri zuen elikagaien segurtasuna, eta nabarmen sufritu zuten elikagaiak ekoizten zituztenek, bereziki, animalia-jatorriko elikagaiak ekoizten zituztenek. Egoera horren ondorioz, elikaduraren arloko Europako legedia berrikusi zen, goitik behera. Eta orain, ia 25 urte igaro dira!

Azken urte hauek oso urte nahasiak izan dira sektorearentzat, zenbait krisi sanitario eta geopolotiko baitaramatzagu bata bestearen atzetik, hala nola Ukrainako gerra, eta ondorengo ezegonkortasun politikoak, bai eta klima-aldaketaren ondorioek eragindako ingurumen-krisia ere. Horiei guztiei inflazioak gora egiten jarraitu duela gehitu behar zaie, batik bat, elikagaietan.


2025. urtea bereziki gogorra izan da; izan ere, zoonosi eta animalien zenbait gaixotasun bizi izan ditugu, eta nekazaritzaren sektorea zein abereen osasunaren arloko agintari eskudunak estutasunean jarri dituzte. Zaila da baldintza horietan elikagaiak ekoiztea, eta, hortaz, nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak utzi egiten dira eta ez dago belaunaldi-erleborik. Horrek kaltetu egiten du gure ekoizpen-gaitasuna, eta hirugarren herrialdeen menpe uzten gaitu, baina herrialde horiek ez daukate Europar bizi dugun araudiaren arloko presiorik. Eta horrek gure lehiakortasuna kaltetzen du. Hori da, hain zuzen ere, Europak eta Mercosurrek sinatutako akordioak eragiten digun kezka. Izan ere, euskal ekonomiaren hainbat sektoreri mesede egingo die, hala nola industriari, baina berriro ere lehenengo sektorea kaltetu dezake.

Inguruabar horiek guztiek zeharka eragiten diete elikagaien segurtasunari eta herritarrek elikagaiak eskuratzeari. Hortaz, urte hauetan elikadura albisteen eta agenda politiko zein sozialen erdigune da.

Egungo Europako eta tokiko elikadura sistema etengabeko eztabaidagai bihurtu da, eta sustatzen ari den elikadura-jasangarritasunaren erdua zalantzan jarri da, araudiarekiko zorroztasunagatik. Hori dela eta, eskuin-muturreko joera negazionistak indarra irabazten ari dira.

Egun segurtasun ezak inguratzen gaitu, eta gure lana da gure sektorea babesten eta laguntzen jarraitzea behar duen orotan; eta, horretarako, gure erakundea sorrarazi zuen helburua lortzeko agertzen diren erronkei aurre egin behar diogu, hots, euskal elikadura sistema segurua, osasungarria eta jasangarria eratzea.

Memoria honen bidez, esker on berezia adierazi nahi diegu gure interes-talde guztiei, hobetzen laguntzeagatik eta gure lana aitortzeagatik.



Stua.: Miren Arantza Madariaga Aberasturi
ELIKAkoko zuzendari - gerentea

B. 2025. URTEAREN LABURPENA

2025. urtea 2025-2028 Estrategia berriaren abiapuntua izan da. Estrategia hori 2024aren amaieran egin zen Gogoeta Estrategikoko prozesu baten ondoren diseinatu zen. Jarduketa horrek Fundazioaren ziklo berri baten hasiera markatzen du. Ziklo horretan, gure ahaleginak bideratu ditugu lehentasunak finkatzera, lan-ildo berriak aktibatzen eta elikadura seguru, osasungarri eta jasangarriarekin dugun konpromisoa indartzera. Memoria honetan jasota daude 2025eko aurrerapen nagusiak.

Fundazioaren kudeaketa efizientea, arduratsua eta gardena da gure erakunde-kulturaren zutabea, eta, aldi berean, lan sozial eraginkorra egin dezakegun jardueretan parte-hartze aktiboa izaten dugu, gure gaitasunekin bat:

- **Alderdi ekonomikoa:** konpromiso sendoa dugu esleitzen dizkiguten baliabideen kudeaketa eraginkorarekin eta gardentasunarekin. Gure web atariaren bidez, herritarren eskura jartzen ditugu datu ekonomiko guztiak. Horretarako, urtero modu independentean ikuskatutako kontuen balantzea argitaratzen dugu.

- **Alderdi soziala:** fundazio publikoa garen aldetik, oro har gizarteari zerbitzatzeko bokazioa dugu, eta, aldi berean, gure pertsonak zaintzen ditugu lan-eremuan zein gizarte-eremuan. Era berean, konpromiso sendoa dugu berdintasuna sustatzearekin eta gure langile guztiek euskara erabiltzearekin. Aktiboko parte hartzen dugu erakundeetan eta euskal gizartean GJHak (Basque Country 2030 Agenda) sustatzen eta ezartzen.

- **Ingurumen alderdia:** ahalegin berezia egiten dugu gure jardueren inpaktua txikiagoa izan dadin; horretarako, murriztu egiten dugu gure jardueren beharrezkoak diren baliabideen erabilera. Bat egiten dugu erosketa berdearen irizpideekin eta gure hornitzaileei irizpide horiek betetzeko eskatzen diegu. Bestalde, ahalik eta gehien murrizten dugu hondakinen sorrera eta sortzen ditugunak birziklatu edo berriz erabiltzen ditugu.

2025ean Fundazioak euskal administrazioarentzako eta nekazaritzako elikagaien sektorearentzako aholkularitza-zerbitzuen eta gure formakuntza- eta informazio-produktuen esparruan **gauzatutako jardueri** dagokienez, honako ekintza hauek azpimarra ditzakegu:

- **Euskal administrazioari aholkularitza zientifikoa eta teknikoa eskaintzea elikagaien segurtasunerako politikak hedatzeko:** aurrez azpimarratu behar dugu Euskadiko Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa eratu dela eta bi bilkura egin direla arriskuak ebaluatzen. Gainera, urtea zenbait animalia-gaixotasunek markatu dute, batzuk ezagunak (mihi urdinaren gaitza, hegazti-gripeak, salmonella) eta beste batzuk hurbileko lurraldeetan agertu berriak (dermatosi nodular kutsakorra, txerri-izurri afrikarra), bai eta pinu zuraren nematodoak ere. Beraz, gaixotasun horien kudeaketan eta komunikazioan laguntza eskaini dugu. Nabarmenezkoa da, halaber, aurrez Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plan berria (EKOP 2026-2030) egin eta onartu dela. Plan horretan, kontrol ofizialerako 19 programa gehitu dira, eta horrek karga handia ekarri die programa horietako lantaldeei. Halaber, abeltzaintza- eta erlezaintza-antolaketaarako dekretu autonomikoak argitaratu dira (50/2025 Dekretua eta 139/2025 Dekretua). Bestalde, ONTZI HUB

plataforma kudeatzen jarraitu dugu, ontzien araudi berriaren eraginari buruzko txosten sektorialak egin eta aurkeztu ditugu. Amaitzeko, Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskal Estrategia dinamizatzen jarraitu dugu. Azpimarratu beharra dago zenbatzeko azterlan berri bat martxan jarri dugula, eskoletako jantokietan elikagaien xahuketa murrizteko hezkuntzarekin egin dugula lan, ikerketa-proiektuetan parte hartu dugula, soluzioak lortzeko, eta sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak egin ditugula.

- **Elikakateko langileei babesa eta laguntza ematea:** Elikagaien Segurtasunaren arloko betekizunak ulertzen eta ezartzen laguntzeko tresnak mantendu edota hobetu ditugu. Aipatzekoak dira nekazaritzako elikagaien sektorearentzako formakuntza-plataforma, LEGISELIKA legeen datu-basea, pentsuen mapa elikakateko langileentzat, animalien gaixotasunei eta elikagai-arriskuei buruzko fitxak eta informazio-triptikoak, etiketei buruzko material interaktiboak, eta elikagaien xahuketa ekiditeko gidak eta aholkuak. Horrez gain, gure interes-taldeek egindako 142 eskariri erantzun diegu, informazio-esakerak, zalantzak araudiak interpretatzean, eta nekazaritzako elikagaien sektorearen premiak eta arazoak bideratzea eta haiei buruz hitz egitea.

- **Formakuntza gure interes-taldeentzat:** elikagaien sektorearentzako 14 formakuntza-ekitaldi antolatu ditugu (969 parte-hartzaile) zenbait gairen inguruan, hala nola ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak hedatzea, elikagaien xahuketaren erronka, nekazaritza-higienea, abeltzaintza-antolaketa, elikadura-ontziak, hurbileko salmenta, klima-aldaketa, elikagaien etiketak, etab. Horretaz gain, beste erakunde batzuek elikagaien segurtasunean eta elikadura jasangarri eta osasungarriaren alorrean antolatutako 20 jardunaldi eta ikastarotan hitzaldiak ematera gonbidatu gaituzte.

- **Informazioaren komunikazioa eta hedapena:** elikagaien segurtasuneko, elikadura osasungarriaren eta jasangarriaren arloan nazioartean argitaratutako informazio eguneratu guztia gure interes-taldeen esku jartzen jarraitu dugu, ohiko formatuen bidez. Testuinguru horretan, 2025ean, 121 albiste eta 72 informazio-material, liburuxkak eta triptikoak argitaratu ditugu. Horien artetik honako hauek nabarmentzen dira: EITBko A Bocados eta Sukalerrian saioetarako elikagaien segurtasunari buruzko infografia eta bideo berriak. Argitaratzen dugun informazio guztia gure ohiko kanalen bidez eskuratu daiteke, hau da, gure webgune korporatiboaren bidez eta kontsumitzaileei eskainitako atariaren bidez (hilero 37.000 erabiltzaile inguru dituzte), Elikaberri hilabetekariaren bidez (gaur egun 734 lagun inguruk jasotzen dute) eta 23.560 jarraitzaile baino gehiago dituzten sare sozialen bidez (Twitter, Facebook, Instagram eta LinkedIn). Azpimarratzekoa da, halaber, komunikabideetan ere gero eta presentzia handiagoa dugula; prentsan, irratan eta telebistan 75 eragin baino gehiago zenbatu ditugu. Zifra horiek guztiek Euskadin Elikagaien Segurtasun arloan erreferente bihurtzen gaituzte, gure ikuspegiaren definitu dugun bezala.

1. ELIKA Fundazioaren izaera

ELIKA Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitako fundazio publikoa da eta haren helburua da **Euskadin elikadura seguruagoa, osasungarriagoa eta jasangarriagoa lortzeko lan egitea.**

Fundazioa 2001ean sortu zen Elikadura Segurtasunerako ezinbestekotzat jotzen diren jarduerak, ikerketak eta esperientziak sustatzeko, egituratzeko eta horiei lotutako aholkularitza emateko. Garai horretatik, Elikadura Segurtasunarekin zerikusia duten beharrak eta eskakizunak finkatu dira, eta elikagaien ekoizpen-kateko eragileei eskatu zaizkie, bai eta administrazio publikoari ere, eragileek eskakizun horiek betetzen dituztela zaintzeko eta kontrolatzeko.

Egoera horiek ELIKA erreferente bihurtu dute Elikagaien Segurtasunaren arloan; izan ere, esperientzia eta ezagutzak ditu Elikagaien Segurtasunaren barruan dauden eremuetan, kudeaketako bikaintasun-ereduak ditu, eta, gainera, ingurune aldakorrera egokitzen jakin du, eta bere lana egitean interes-talde guztiak bere jarduketara-eremuan partaide egin ditu.

a. Gizarte erantzukizun korporatiboko politika

Fundazio publiko gisa, zerbitzurako bokazioarekin jaio ginen. Xedea ez da soilik gure sorrerako helburuak betetzea eta Euskadiko Elikagaien Segurtasunaren hobekuntzan lan egitea; izan ere, zorrotzagoak izan behar dugu gure erantzukizun sozialarekin. Horregatik, euskal gizarteak gudan inbertitzen dituen baliabideei balioa ematen saiatu behar dugu, eta, era berean, jokabide etiko, sozial eta ingurumenarekiko arduratsuak izan behar ditugu.

Horrenbestez, 2025-2028 Estrategia berriaren bidez, ingurumenarekiko errespetutsuak gara; formakuntza eta komunikazio elebiduna sustatzen dugu (euskara eta gaztelania); erakunde eskuragarria, gardena eta euskal gizarte orokorrarekiko hurbila gara eta Elikaduraren Segurtasunean dauden egiturei balioa eta laguntza emateko kalitatezko lana egiten dugu. Era berean, gizartearekin dugun konpromisoarekin kontsekuenteak gara, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dugu eta gardentasunari buruzko legea betetzen dugu. Horrez gain, Datuen Babeserako Europako Erregelamendura (DBEO) egokitu gara.

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) identifikatu (Euskadi 2030 Agendan jasota daude) eta gure helburu estrategikoekin lerrokatu ditugu. Testuinguru horretan, 2025. urte honetan autoebaluazio bat egin dugu gure erakundearen kudeaketan GJHak sartzeari buruz, eta horri esker jaso dugu Euskaliten Konpromisoa aitorpena (ikus 2e)

Era berean, aktiboki laguntzen dugu GJHak euskal erakundeetan ezartzea sustatzen duten organo eta foroetan.

b. Gobernu-organoak

PATRONATUA

ELIKAREN gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organo goren da. Organo horrek bere menpe ditu Fundazioaren kudeaketako zuzendaritza- eta kontrol-gaitasunak, zeinak beharrezkoak diren ezarritako erakunde-xedeak garatzeko. Honako hau da gure patronatuaren egungo osaketa 2025eko abenduaren amaieran:

PRESIDENTEA	Amaia Barredo Martin Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Sailburua Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila		
PRESIDENTEORDEA	Raúl Pérez Iratxeta Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordea Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila		
IDAZKARIA	Rogelio Pozo Carro AZTIko zuzendaria		
BATZORDEKIDIAK	Raimundo Ruiz de Escudero HAZI fundazioko Ordezkaria	Guillermo Herrero Alaña Osasun Publikoa eta Adikzioak arloko zuzendaria Osasun Saila	Ana M^a Sanchez Herraiz Kontsumobideko Zuzendaria
	Olatz Unamunzaga Galarza NEIKEReko zuzendaria	Leandro Azkue Mugica Arrantza, Portuetako eta Itsasertzeko Sailburuordea Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila	
	M^a Luz Ruiz Melendo Zerbitzuen zuzendaria Ogasun eta Finantzen Saila	Jon Karlos Aguirre Huerga Zerbitzu Zuzendaria Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila	

c. Aliantzak eta interes-taldeak

Gure interes-taldeak 6 talde handitan sailkatzen dira: patronatua, bezeroak, kolaboratzaileak, pertsonak, hornitzaileak eta gizartea. Horien artean, gure pertsona edo erakunde aliatuak identifikatu ditugu (letra lodiz): parte hartzen dute gure egitekoa, ikuspegia eta helburuak lortzen, interes komuna partekatzen eta guztiontzako onurarekin.

- **Patronatua:** Eusko Jaurlaritza (Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordea, Arrantza, Portuetako eta Itsasertzeko Sailburuordea, Osasun Publikoa eta Adikzioen Zuzendaritza, Ogasuna), AZTI, NEIKER, HAZI eta Kontsumobide.
- **Gure zerbitzuen bezeroak/hartzaileak**
 - Administrazioa: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak
 - Elikakatea: eragile sektorialak, elikakateko operadoreak eta teknologia-zentroak
 - Kontsumitzaileak

○ Kolaboratzaileak:

- Batzorde Zientifikoa, adituak eta ikertzaileak (UPV/EHU, Leartiker, AZTI, NEIKER, Tecnalia)
- Lantalde eta proiektuetako parte-hartzaileak: BFC elikadura-klusterra, Ingurugela, Katilu, Bilbaodendak, Gasteizon, Aiaralde, Atxuri GE, Auzolan Fundazioa, Eroski.
- Oihartzuna ematen diguten nodoak / hedabideak
- Europako eta Estatuko administrazioak
- Antzeko erakundeak / elikadura-segurtasuneko agentziak

○ Pertsonak

○ Hornitzaileak:

○ Gizartea / herritarrak

BEZEROAK ETA KOLABORATZAILEAK

Gure bezeroak gure produktuen eta zerbitzuen xede diren erakunde eta pertsona guztiak dira, zeinak gure Erakundearen motorra diren. Hiru multzo nagusi daude: Administrazioa, Elikakatea eta Pertsona Kontsumitzaileak.

Bestalde, kolaboratzaile-sarea handia daukagu. Lankide horiek nolabait parte hartzen dute gure produktuen eta zerbitzuen diseinurako eta garapenerako egiten ditugun lanetan.

Gure bezeroekin eta kolaboratzaileekin harreman arina dugu, eta une oro lankidetzan aritzen gara. Gainera, epe luzerako konfiantzazko harremana ezartzen saiatzen gara; horretarako, hurbileko tratua dugu eta gugana heltzeko erraztasun handiak ematen ditugu, betiere gure profesionaltasuna mantenduta eta egoera berrietara egokituta, etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzen bidez.



Gure bezeroen eta kolaboratzaileen asebetetze-maila 9,15

PERTSONAK

Elikako pertsonak dira erakundearen baliorik garrantzitsuenak, eta gure oinarria ezagutza denez, bereziki garrantzitsua da jasotzen dugun etengabeko formakuntza. Horrez gain, gure pertsonen gaitasunak garatzeko lan egiten dugu, bai gaitasun teknikoak, bai giza gaitasunak eta pertsonen arteko gaitasunak.

Pertsona guztiok parte hartzen dugu estrategia definitzen eta hedatzen, eta lan-ingurune atseginari eusten; izan ere, horiei esker, eta garapen profesionalerako eta bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko erraztasunekin batera, pertsonen motibazioa, konpromisoa eta inplikazioa handitzen dira eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzu guztietan.



Elikako pertsonen asebetetze-maila 8,89

HORNITZAILEAK

Gure hornitzaileak dira gure bitartekoen bidez eskaini ezin ditugun eta gure beharrei eskaintza ekonomiko erakargarri baten bidez erantzuten dieten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak. Hornitzaileen kontratazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betez egiten da, eta kontratazio horiei buruzko informazio guztia eskuragarri dago gure webguneko gardentasun-atarian. Hornitzaileekin daukagun harremana arina eta konfiantzazkoa da.

|  Elikako hornitzaileen asebetetze-maila 9,29 |

GIZARTEA

Gure ustez, Gizartea da gure lana egiten dugun inguru soziala, eta, hortaz, gure jardueraren eraginak nabaritu ahal ditu. Fundazio Publiko gisa, gizarteari balioa emateko sortu ginen; horregatik, guretzat oso garrantzitsua da konpromiso soziala, zeina bost eremutan kokatzen dugun: gardentasuna, berdintasuna, euskararen erabilera, datu pertsonalen babesa eta ingurumenarekiko errespetua. Era berean, jarduketa zehatzak egiten ditugu, gizarte ekarpeneko esparruaren barruan, gure inguruko beharrak betetzera bideratuak.

|  Gizartearen asebetetze-maila: 8,21 |

d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak

Prozesuak Kudeatzeko antolakuntza-eredua finkatuta daukagu eta gure jarduera osoa zortzi prozesuren barruan dago.

Prozesuen Mapan zortzi prozesu horiek islatzen dira, eta hiru prozesu estrategikotan, hiru prozesu operatibotan eta bi laguntza-prozesuak banakatzen dira:

Gainera, Ezagutza Arloak finkatuta ditugu, eta horietan ELIKAn lantzen ditugun gai guztiak zehazten dira:

- Elikadura segurtasuna
 - Nekazaritza
 - Abeltzaintza
 - Arrantza
 - Elikagaien Industria
 - Animalien Elikadura
- Elikadura Jasangarria
- Elikadura Osasungarria



e. Kudeaketa Aurreratuko Eredua

Gure erakundea bikaintasunarekin konprometituta dago 2007az geroztik; izan ere, ELIKArek kudeaketarako erreferentzia gisa Kalitateko Kudeaketarako Europako Fundazioaren (EFQM) bikaintasun-eredua ezarri genuen, eta, 2014an, Euskaliten Zilarrezko Q lortu genuen. Beranduago, Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) hartu genuen erreferentzia gisa, eta Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren urrezko saria jaso genuen 2019an. Geroago, Euskalitek 2021ean Pertsonen Kudeaketa Aurreratuko Euskal Saria eman zigun, eta Estrategiaren Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria 2022an.

Geroago, Euskalitek Pertsonen Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria eman zigun 2021ean, eta Estrategiaren Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria 2022an.

Urte hauetan, Etengabeko Hobekuntza eta Kudeaketa Aurreratu sustatu ditugu, eta pertsona guztiek formakuntza jaso dute eredu guztietan, urteko autoebaluazioak egin dituzte eta kudeaketa sistema mantendu dugu ELIKAk talde osoaren aldezako bileretan.

Aurten, 2025ean, EUSKALITek kudeaketa aurreratuko kanpo-ebaluazio batean parte hartzeko eskatu digu, pertsonen kudeaketaren arloan gure ezagutza eta esperientzia helarazteko.

2. Kultura Estrategikoa

Gure Estrategiaren diseinua, 2025-2028 aldirako, erabat lerrokatuta dago Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), eta, gainera, bat dator “One Health/Osasun bakarra” munduko estrategiarekin eta Europako Itun Berdean jasotako Baseritik Mahaira Estrategiarekin. Hortaz, Euskadiko 2030 Agendaren, Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren (GEPE BERRIA) eta Basque Green Dealen (Euskadiko Itun Berdea) barruan dago.


a. ELIKAre misioa



b. ELIKAre ikuspegia



c. ELIKAREN balioak



d. Helburu estrategikoak 2025-2028

Helburu estrategikoak:	Prozesuak
Hurrengo 4 urteetan honako helburu hauek ezarri ditugu: HE1 Euskadin elikadura-politikak zehazten eta hedatzen laguntzea eta parte hartzea. HE2 Elikagaien segurtasunaren kultura hedatzea eta sektoreari laguntzea nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioan. HE3 Euskal gizartea ahaldunduz elikaduraren arloan erabakiak hartzen. HE4 Bikaintasunez antolatu eta kudeatzea.	▶ ZAINZA TEKNOLOGIKOA ☐ ▶ AHOLKULARITZA ☐ ▶ PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA ☐ ▶ PLANGINTZA ESTRATEGIKOA ETA KUDEAKETAKOA ☐ ▶ PROZESUAK ETA BERRIKUNTZA ☐ ▶ PERTSONAK ☐ ▶ AURREKONTU- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA ☐ ▶ HORNITZAILEAK ETA BALIABIDEAK ☐

e. Plan Estrategikoa 2025-2028

Aurten, 2025. urtea, **2025-2028 aldirako Plan Estrategiko** berriaren lehenengo urtea izan da. Plana erabat lerrokatuta dago Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin, “One Health/Osasun bakarra” estrategiarekin, Baseritik Mahaira Europako Estrategiarekin eta Food 2030 Europako Batzordearen Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiarekin, zeinak elikadura sistema jasangarri, osasungarri eta inklusiboetarako trantsizioa babesten duen. Horrenbestez, estrategia berri hori honako hauen barruan dago: Euskal Agenda 2030, Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa eta Basque Green Deal/Euskadiko Itun Berdea.

Halaber, 2025ean, **GJHak gure erakundearen kudeaketan txertatzeari buruzko autoebaluazio bat** egin dugu. Tresna hori Euskalitek eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak helarazi digu, eta horri esker Konpromisoaren aintzatespena jaso dugu, arlo horretan gure aurrerapenari eta etorkizuneko konpromisoari lotutako eskakizunak bete ditugulako.



f. 2025eko jardueren laburpena

Honako hauek dira ELIKAREN jarduketa-eremuetan 2025ean egin diren jarduera nagusiak:

A) Aholkularitza zientifiko eta teknikoa

Euskal administrazioei aholkularitza zientifikoa eta laguntza teknikoa ematen jarraitu dugu, zuzenean zein zeharkako idazkaritza teknikoen bidez. Ezagutza aditua eman diegu erabakiak hartzeko oinarria izan zezaten, elikagaien segurtasuna hobetzeko planak eta programak sustatu eta dinamizatu ditugu, eta aktiboki hartu dugu parte elikadurarekin lotutako zenbait estrategiatan. Jarduketa hauek nabarmentzen dira:

A.1. ARRISKUEN ANALISIAREN SISTEMATIKA INDARTZEA ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOAN ERABAKIAK HARTZEKO OINARRI GISA.

A.1.1. Euskadiko Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifiko berria eratzea:

2025eko ekainaren 26an, batzorde zientifiko berria eratu zen, eta osaera 2024aren amaieran berritu zen. Halaber, Batzorde horrek beste bilkura bat egin zuen 2025eko azaroaren 10ean. Bi bilkura horietan honako gai hauek jorratu ziren: isurketa industrial batek eragindako eremu baten kutsaduraren ebaluazioa; elikagaien soberakina berrerabiltzeko elikagaien bizitza baliagarria luzatzeko elikagaien segurtasunaren arloko irizpideak; eta anisakis arriskua ebaluatzea euskal biztanleen artean.



A.1.2. Alerten kudeaketan eta jakinarazpenean laguntzea: 2025ean foru-aldundien eta Osasun Sailarekin batera lankidetzan aritu gara honako protokolo eta prozedura hauek berrikusi eta adosteko:

- ✓ Abereen osasuneko alerten aurreko protokolo koordinatua.
- ✓ Etxe-ungulatuaren premiazko hilketarako prozedura, hiltegitik kanpo.

Halaber, honako gaixotasun hauek kudeatzeko eta jakinarazteko lagundu dugu:

○ Hegazti-gripea:

- Agintari eskudunei laguntzea Euskadin gaixotasun horren foku berrien arriskua ebaluatzen, kudeatzen eta jakinarazten: 2025ean basa-hegaztien 14 foku eta gatibu dauden hegaztien 1 foku.
- Eskortako hegaztien balizko foku bati aurre egiteko kontingentzia-plana prestatzea: hegaztiak hiltzeko eta kutsatuta egon daitekeen materiala suntsitzeko alternatibak bilatzea: in situ lurperatzea, zabortegiak, errausketa, etab.
- Hegaztien euskal sektorearekin egindako bileretan parte hartzea, egoera epidemiologikoaren berri emateko eta arriskua prebenitzeko neurriak adosteko.
- Erantzuteko Barne Oharrak egin eta adostea, foku berrien eta gauzatutako neurrien berri emateko.
- Prebentzio-neurrien Agindu bat prestatzen eta EHAAren argitaratzen laguntzea: Ministerioaren Agindu bidez dekretatutako konfinamenduaren salbuespenak ezartzea.

○ Dermatosi nodular kutsakorra:

- Agintari eskudunei laguntzea gaixotasun horren foku berrien arriskua kudeatzen eta jakinarazten, Katalunian agertu ostean:



DERMATOSI NODULAR KUTSAKORRA (DNK)

Nola transmititzen da?
Hegaztiak, erakundeak eta hegaztiak kutsatuta transmititzen eta, batez ere, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen.

Zer sintoma eragiten ditu?
Zutatu edo kutsatu ondoren, 4-6 egun buruan, agertzen dira sintoma animalien gainean, batez ere:

- Sukuma.
- Dermatitis eta zutatuak azalaren gainean.
- Eneko-erreakzioak.
- Azalaren edema.
- Lurperatzen diren zutatuak.
- Infekzioak.

Azaleko nodulak beste gaixotasun batzuen eraginez agertzen direnak dira. Baina, nodulak agertzen diren tokian, zutatuak, erakundeak, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen dira.

PREBENTZIOA ETA KONTROLA
Erakundeak, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen eta, batez ere, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen.

Zaintza
• Erakundeak zutatuak berriz daitezke animalien artean, batez ere, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen.

Biosegurtasun neurriak
• Erakundeak zutatuak berriz daitezke animalien artean, batez ere, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen.

Animalien mugimenduen kontrola
• Erakundeak zutatuak berriz daitezke animalien artean, batez ere, animalien artean, erakundearen bidez transmititzen.

- Erantzuteko Barne Oharrak egin eta adostea, informazioari buruzko informazioa emateko.


- Kautelazko neurrien agindu bat prestatzen eta EHAAren argitaratzen laguntzea: abere-metaketak etetea, animalien mugimenduak kontrolatzea eta abeltzaintza garraiorako ibilgailuak desinfektatu eta intsektuak kentzea.

○ Mihi urdinaren gaitza:

- Agintari eskudunei arriskua ebaluatzen, kudeatzen eta jakinarazten laguntzea, Euskadin gaixotasunaren 8 serotipoko kasu berriak eta 3 serotipoko kasuak lehen aldiz agertu ondoren: ehun kasu baino gehiago 2025ean.
- Zaintza-programa eta txerto-kanpainak sustatzea.
- Erantzuteko Barne Oharrak egin eta adostea, foku berrien eta gauzatutako neurrien berri emateko.

○ Txerri-izurri afrikarra

- Informazioa eguneratzea webgunean: Txerri-izurri afrikarraren mikrositea.
- Erantzuteko Barne Oharra egin eta adostea, Katalunian fokuak agertu direla jakinarazteko eta fauna basatiarekin kontaktua prebenitzeko.



○ Salmonella agerraldia arrautzetan

- Ekoizpen primarioko agintari eskudunei laguntzea hegazti-ustiategi bati lotutako 2 salmonella agerraldi kudeatzeko (2025eko abuztua eta 2025eko azaroa): baserriko jarduketaren jarraipena.

○ Pinu zuraren nematodoa:

- Pinu zuraren nematodoari Erantzuteko Barne Oharra egiten laguntzea, Euskadiko zuraren eragileei zuzenduta.

○ Alerten jakinarazpenak:

- www.euskadi.eus webgunean Animalien Osasunari buruzko atala eguneratzea, Euskadin jakinarazitako fokuei buruzko informazioa gehitzeko.
- Pentsuen eta elikagaien alerta-sareen (RASFF) jakinarazpenei buruzko lauhileko eta urteko txostenak egitea www.elika.eus webgunean (ikus C1 atala).
- Erakunde ofizialek argitaratutako alertei eta produktuak merkatutik kentzeari buruzko 76 jakinarazpenen gaineko informazioa ematea webgunean eta sare sozialetan (10 alerta orokor + alergenoei buruzko 66 alerta).



A.1.3. Elikaduraren arloko ikerketa babestea, sustatzea eta nazioartekotzea

○ Baseritik Mahaira Euskal Ikerketa Plana 2022-2026:

- Plana urtero hedatzeko aholkularitza teknikoa ematea eta Ikerketa Koordinatzeko Mahaiaren Idazkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak 2025ean finantzatutako 10 proiektu zehazteko eta garatzeko aholkularitza (332.418 €).

Ikerketa-zentroek proiektuetan duten parte-hartzea koordinatzea eta elikadura-kateko eragileekiko lankidetzak bultzatzea. Proiektuen jarraipena egitea eta emaitzak zabaltzea.

- ikerketa-premiak identifikatzea eta lehenestea. Ikerketa-premiak 2026ko proiektuetan sartzea.
- Elikadurarekin zerikusia duten 4 ikerketa-proiektu babestu eta lankidetzan aritzea.

○ Elikadurarekin lotutako nazioarteko sareetan parte hartzea:

- **FutureFoodS: Elikadura-sistema jasangarriari buruzko lankidetzak.** ELIKAK Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzaren ordezkari gisa hartzen du parte, Elikadura-sistema Jasangarrietan duen ezagutza eta esperientziarekin. Urrian 1. deialdia ebatzi zen, euskal erakunde baten parte-hartzearekin. Abenduan bigarren deialdia egin da. Deialdi horretan euskal erakundeek nazioz gairikoko partzuergoekin I+G+b proposamenak aurkez ditzakete. Gainera, jardura tekniko eta ekonomikoari buruzko bigarren txostena egin da.
- **ERANET Co-fund SusAn “Animalia-ekoizpenaren Sistema Jasangarrien Europako Sarea”.** CONNECTFARMS proiektua (Neikerren parte-hartzea): Proiektua 2025eko ekainera arte luzatu eta amaierako txostena aurkeztu.
- **ECDCren Lighthouse Praktiken Komunitatea:** ELIKA Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC) koordinatutako praktiken komunitate baten parte da, gaixotasun infekziosoen prebentzioan gizarte- eta portaera-zientziak txertatzeko helburuarekin.
- **Arrisku Kimikoak Ebaluatzeko OMEren Sarea:** ELIKAK Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) koordinatzen duen Arrisku Kimikoak Ebaluatzeko Sarean parte hartzen jarraitzen du. Sarearen helburua da arrisku kimikoekiko esposizioaren bide posible guztien bidezko giza osasunerako arriskuen ebaluazioa hobetzea.

A.2. ELIKADURAREN SEGURTASUNA HOBETZEKO PLANAK ETA PROGRAMAK: Honako plan eta jarduketak-programa hauek sustatu eta dinamizatzen ditugu:

- A) Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana: ELIKAK Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana dinamizatzen du. 2025ean hurrengo bosturtekorako plan berria egin dugu: Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana, EKOP 2026-2030, eta plan horri lotutako dokumentazio horizontala: gainbegiratzeko eta egiaztatze prozedurak, formakuntza-plana, eta kontrol ofizialerako programen laborategiak eta auditoretzak aukeratzea.

Gainera, ELIKAK kontrol ofizialerako planean parte hartzen duten administrazioetako lantaldeen idazkaritza zuzentzen du (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak).

- ✓ Koordinazio Talde Horizontala
- ✓ Nekazaritzako Kontrol Ofizialeko Programen Higienea LT
- ✓ Landare Osasuna LT
- ✓ Erauzketa-arrantzen eta Akuikulturaren Higienea LT
- ✓ Abeltzaintzako Ustiatagietako Higienea LT
- ✓ Esne gordinaren ekoizpenari buruzko lantaldea
- ✓ Animalien Ongizatea LT
- ✓ Ugalketa-produktuen lantaldea
- ✓ Erkidego barruko mugimenduak egiten dituzten establezimenduen lantaldea (taldekatua).
- ✓ Kalitatea eta ekoizpen ekologikoa lantaldea



Lantaldeen (LT) esparruan, honako jardura hauek egiten dira:

- ✓ Kontrol ofizialeko programak, lan-prozedura normalizatuak eta ikuskapen-akten ereduak egitea eta eguneratzea.
- ✓ Kontrol-programak gauzatzeko urteko txostena egitea.
- ✓ Barne-auditoretzen ondoren, hobekuntza-planak garatzea eta abian jartzea.
- ✓ Ikuskatzaileei zuzendutako formakuntza-plana egiten laguntzea.

B) ONTZIHUB, Basque Food Packaging Innovation Hub: BASQUE FOOD CLUSTER erakundearekin batera kudeatzen jarraitu dugu ENVAS3S proiektuaren esparruan sortu zen plataforma hori. Proiektua 2023an ZTBPan integratutako Berrikuntza Funts batek finantzatu zuen.

2025ean, besteak beste honako jarduketa hauek egin ditugu:

- **ONTZI** plataforma kudeatzea; gaur egun 626 eragile ditu.
- **Merkatu-behatokia:** enpresei aholkularitza teknikoa eta legala ematea.
- Araudia ezagutzeko formakuntza atalean, 6 txosten sektorial egin ditugu ontzien araudi berriaren inpaktuari buruz, eta infografia laburrak diseinatu ditugu hobeto ulertzeko (ikus 3.2 atala), eta sektoreko informazio-jardunaldien bidez ezagutzera eman ditugu (ikus 2.2 atala).
- Sektorearen beharrak garatzea eta identifikatzea, 15 proiektu egiteko.
- Plataformaren topaketak antolatzea (ikus 2.2 apartatua).



A.3. ELIKAGAIEN XAHUKETAREN AURKAKO EUSKAL ESTRATEGIA: Elikagaien xahuketaren aurka egiteko Euskadiko Estrategiaren buru gara, eta, batik bat, honako esparru hauetan lan egiten dugu:

○ Elikagaien xahuketaren arrazoiak berriro kuantifikatzea eta identifikatzea

- Euskadiko elikaduraren elikakatean zehar elikagaien xahuketa kuantifikatzeko azterlana zuzentzea (ekoizpen primarioa, elikadura-erlaketaren industria, jatetxeak eta janari-zerbitzuak, txikizkako saltegiak eta etxeak). Errebalorizatu

- daitezkeen elikagaien soberakinak eta koproduktuak identifikatzea eta kuantifikatzea. Landa-lana 2025eko bigarren seihilekoan eta analisia egitea eta datuak argitaratzea 2026ko lehenengo seihilekoan.
- Soberakinak eta elikagaien xahuketa zenbatzea Euskadiko eskoletako jantoki publikoetan. 90 eskola jantokien laginketa.
 - Hiri Hondakinen EAEko Koordinazio Organoarekin (HHKO) lankidetzan aritzea, elikagai-jatorriko hiri-hondakinak zenbatzeko metodologia osatzeko.
- Elikagaien segurtasuneko jarraibideak garatzea, elikagaien xahuketa murriztu eta errebalorizatzeko.
- Lan Batzordea eratzea Osasun Publikoa eta Hezkuntzarekin, eskoletako jantokietako eskakizunak zehazteko.
- Sare solidarioei eta proiektuei laguntza ematea: Tokiko proiektu pilotu berriak sortzeko laguntza elikagaien soberakinak murrizteko eta erabiltzeko, soberazko elikagaiak birbanatzeko...
- Berpiztu programa Aiaraldean: Amurrioko Reforreak lokal bat egokitzea, Aiaraldean elikagaien soberakinak biltzeko kanalaren zentro gisa. Hitzarmena Amurrioko Udalarekin eta Aiarako Kuadrillarekin.
 - Atxuri ikastetxearekin lankidetzan egindako proiektu pilotua amaitzea. Metodologia elikagaien segurtasun mikrobiologikoko azterlan baten bidez baliozkotzea. Proiektuaren ondorioen txostena.
 - Lankidetzara Caritas Bizkaiarekin, soberakinak birbanatzeko.
 - Leioako egoitza batean elikagaien xahuketa murrizteko soluzioak aztertzea eta martxan jartzea.
 - Lankidetzara proiektua Alianza Araba 2030ekin.
- Sentsibilizazioa eta komunikazioa (ikus 3.2 atala ere).
- “Janaria ez da botatzen” sentsibilizazio-kanpaina hedatzea, Euskadiko jantoki kolektiboetako langile eta erabiltzaileen artean. Euskadiko janari-zerbitzuko enpresa nagusiekin lankidetzan aritzea: AUSOLAN, GASCA TALDEA – GASTRONOMÍA CANTABRICA, EUREST, SERUNION-AIBAK, CORPORACIÓN-GASTRONOMIA BASKA, GRUPO MEDITARRANEA TALDEA, TAMAR, ASKORA eta SODEXO. 800 jantoki.



- Gabonetako elikagaien xahuketari buruz kontzientziazteko kanpaina, euskal gizarteari zuzenduta. Mezuak sare sozialetarako bideoen, komunikabide digitalen eta irratiko iragarkien bidez hedatzea.
- Egindako jardueri eta interesekoak izan daitezkeen jardueri buruzko informazioa, Euskadiko elikagaien xahuketaren aurkako plataformaren bidez.
- Webgunea (www.zerodespilfarro.eus) eguneratzeko material berriak.

○ Ikerketa eta konponbideak:

- GUSTOS Europako proiektuko kide, Ausolan, GOeTech, Espigoladors eta Kataluniako Generalitatearekin batera. Proiektuaren helburua da eskoletako jantokietan elikagaien xahuketa murriztea, eskola, erakunde eta enpresen arteko lankidetzaren bitartez ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko.
- Europako FOLOU proiektuan parte hartzea, eskualde errepikatzaile gisa (Twinning Regions Programme), Neikerrekin lankidetzan. FOLOU proiektuak ekoizpen primarioan zehar elikagaiak galtzeari lotutako problematika jorratzen du (nekazaritza, akuikultura, arrantza).

A.4. AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA GARATZEKO ETA HEDATZEKO AHOLKULARITZA

○ Abereen osasunaren araudia

- AGINDUA, 2025eko urriaren 24koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez Dermatosi Nodular Kutsakorren (DNK) aurkako kautelazko neurriak hartzen baitira.
- AGINDUA, 2025eko azaroaren 25koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio- eta kontrol-neurri berriak ezartzen dituen.

○ Hurbileko salmentaren araudia:

- Euskadiko nekazaritzako elikagaien produktuen hurbileko salmentari buruzko 51/2025 Dekretua argitaratzea. Formakuntza eta sentsibilizazio jardunaldiak (ikus 2.2).

○ Abeltzaintzako ustiategiak arautzeko erregelamendua: Dekretu autonomiko berriak izapidetzeko eta hedatzeko aholkularitza:

- 50/2025 Dekretua argitaratzea, irailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen, aldatzea.
- 139/2025 Dekretua argitaratzea, Euskadin erlezaintza antolatzekoa.
- Agintaritza eskudunekin eskatuko diren betekizunak eta baimen-eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentuak modu adostuan definitzea: Erlezaintza-paketea.
- Dekretu berriei buruzko formakuntza-jardunaldiak udal-teknikarientzat.

○ Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzaren Politikako Lege berria: azterketa eta ekarpenak legearen lehen zirriborroari.

A.5. ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE ESTRATEGIA ETA PLAN BATZUETAN PARTE HARTZEA:

Modu aktiboan parte hartzen dugu beste erakunde batzuek gidatutako zenbait estrategietan; izan ere, horietan gure ezagutza eta esperientzia emateko gonbita jaso dugu:

○ Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa (GEPE II).

- Plana alderatzeko taldeetan parte hartzea.

○ 2030 ZTBPko RIS3 Espezializazio Adimendunaren estrategian parte hartzea:

- Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila estrategia hori birdefinitzen ari da; hortaz, 2025ean zehar ez da RIS3arekin lotutako jarduerarik egin. Ildo horretatik, Berrikuntzaren Itsasargiak diseinatu dira, bereziki Osasun Globalaren arloko Ikerketei buruzko Batzordean, osasun bakarraren esparruan ikerketarako gai nagusiak definitzeko.
- Berrikuntzaren Itsasargien aurkezpena bertaratu ginen Olatuan (Getxo), urriaren 31n, bereziki Elikaren jarduerari lotutako biren kasuan: “Elikadura osasungarria eta jasangarria” eta “Osasun bakarra”.
- Ekarpinak egin ditugu ZTBP2030 birformulatzeko.
- Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko eta Osasun Saileko sailarteko batzordea:
 - Sailarteko Batzordearen idazkaritza teknikoa.
 - Animalien osasunari, arrantzari eta kontrol ofizialari buruzko lantaldeak sortzea: lantalde bakoitzaren ekintza-planak definitzea eta bileretan hartutako erabakien jarraipena egitea.

○ Basque Country 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak zabaltzea: Agenda 2030 egikaritu eta martxan jartzeko eta Euskadin GJHak zabaltzeko aliantza eta sareetan parte hartzea:

- BBK Kuna 2030 kideak: aurrerakideak GJH12.
- Araba 2030 aliantza: GJH 12 taldean parte hartzea.
- Lehendakartzak zuzendutako Gunea programan parte hartzea
- BFAko Ingurumen Sailarekin aliantza egitea jasangarritasun-proiektuetarako.
 - Ofizialki ezartzea 12.3.1 Basque Country 2030 Agenda (EUSTAT), a) elikagaien galaren indizea eta b) Elikagaien xahuketaren indizea.

○ Gipuzkoako Azoken Sarea:

- Landaolarekin batera Gipuzkoako Tokiko Azoken Sarea koordinatzea.
- Tokiko Azoken Sarea sustatzeko ekintzak.
- Plan estrategikoan identifikatutako ardatz estrategikoak garatzeko hiru lantalde desberdinetan parte hartzea: Gobernantza eta Komunikazioa.
- Landaolak aurkeztutako proiektuen garapenean laguntzea
- Sektoretako eragileei eta langile teknikoei zuzendutako formakuntza.

○ Bizkaiko Merkatuak:

- Tokiko merkatuetako egoeraren diagnostikoa eguneratzea.
- Jarduketa-estrategia egitea.

○ Elikadurarekin lotutako sail arteko eta erakunde arteko beste proiektu batzuetan parte hartzea:

- Tokiko elikagaiak jantokietan: euskal jantokietan tokiko produktua gehitzeko estrategia sustatzea (Hezkuntza Saila).
- Elikadura Behatokia: Euskadiko Elikakatearen Behatokia: joeren eta jasangarritasunen inguruko lantaldeak (Nekazaritza Sailburuordetza eta HAZI).
- Euskadiko lurzorua babesteko 2030erako estrategia (Ihobe). "PFAs-en inpaktuaren prebentzioa Euskadin" lantaldean parte hartzea.
- 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia (Ingurumen Saila).

B) Elikakateko eragileei laguntza ematea

Aholkularitza-, formakuntza- eta informazio-ekintzak egiten jarraitu dugu, Euskadiko elikaduraren balio-kateko kate-maila guztiei zuzenduta. Gainera, ekoizpen-sistema jasangarriagoa eta elikadura seguruagoa eta osasungarriagoa lortzeko bideratu dugu eta behar horri erantzuna eman diogu. Testuinguru horretan, 2025an, honako ekintza hauek nabarmentzen ditugu:

B.1. Interes-taldeen eskaerak

Gure interes-taldeen **142 eskaera** zehatzi eman zaie erantzuna, hurrengo proportzioetan banatuta:

- Elikatze-kateko operadoreak eta eragileak: 49%
- Administrazioa: 29%
- Hedabideak: 10%
- Zentro teknologikoak eta unibertsitateak: 6%
- Ikastetxeak: 3%
- Herritarrek: 3%

Eskaera gehienak (% 59) Elikadura Segurtasunarekin lotuta daude (lege-baldintzak, etiketak, elikadura-arriskuak, kontrol ofiziala, etab.), eta neurri txikiagoan Elikadura Jasangarriarekin (% 38) eta Osasungarriarekin (% 3).

Heltzen zaizkigun eskaerak honako tipologia hauen arabera sailkatu ahal ditugu:

- Informazio-eskaerak (% 54)
- Proiektuetan parte hartzeko eta laguntzeko eskaerak (% 23)
- Dokumentazioa egiteko edo berrikusteko eskaerak (% 4)
- Sektorearen beharrak edo arazoak bideratzeko eskaerak (% 3)
- Gure ohiko kateetan informazioa zabaltzeko eskaerak (% 10).
- Formakuntza emateko eskaerak (% 6)

Sektorearen beharrak eta arazoak kanalizatzeko eskaeren artean, honako hauek dira azpimarragarrienak:

- Jarduera abiarazteko eta erregistroetan alta emateko eskakizunak: SILUM (pentsuak), REGA (abeltzaintzako ustategiak), RGSEAA (Erregistro Sanitarioa), etab.
- Etiketatzea: osagaiak, alergenok, iraungipen-data eta kontsumitzeko data lehenetsia, QR kodeak, etab.
- Egoera aztertzea eta araudia interpretatzea: ontziak, nekazaritza- eta erlezaintza-ustategien araudi berria...
- Elikagaien xahuketa: lege berria interpretatzeko zalantzak.
- Metodo analitikoak, erreferentziako laborategiak, laginketa-irizpideak eta emaitzen interpretazioa.
- Arriskuen eta Kontrolgune Kritikoen Analisia (APPCC): eskakizunak, digitalizazioa.
- Animalien gaixotasunen diagnostikoa, prebentzioa, txertoak.
- Elikagaiak kaltetzea itzalaldietan.

Gainera, hainbat foro dinamizatu ditugu sektoreko eragileekin, baserritik mahaira estrategia txertatzen laguntzeko eta elikagaien segurtasunaren kultura zabaltzeko:

- Esnekien eta gaztagintzaren sektoreko eragileekin aritzeko lantaldea, gaztaren eta esnekien elikadura-segurtasuna hobetzen lan egiteko.
- Ezti-ekoizleen elkarrekin aritzeko lantaldea, erlezaintza paketearen garapenean eta hedapenean lan egiteko.
- Gipuzkoako landa-garapeneko elkarrekin eta Gipuzkoako Merkatuen Sareko udalekin aritzeko lantaldeak.
- Bizkaiko landa-garapeneko elkarrekin aritzeko lantaldea.
- Ontzi jasagarriari buruzko sektore-lantaldeak (ONTZIHUB-ren esparruan).
- Elikagaien xahuketari lotutako ardatz estrategikoekin lotutako lantaldeak: Euskal elikakatean elikagaien xahuketa zenbatzeko lantaldea, eskoletako jantokien batzordea, Euskadiko janari-zerbitzuen eta catering-en sektorea elikagaien xahuketarekin kontzientziazteko kanpaina eta.

B.2: Formakuntza-ekintzak

Formakuntzaren esparruan, elikadurari buruzko 14 **formakuntza-ekintza** antolatu ditugu; eta 969 pertsonak parte hartu dute, eta izan duten asebetetze-maila 8,8 koa izan da.

Honako formakuntza hauek nabarmentzen dira:

- "Deshidratazioa nekazaritzako elikagaien sektorean: ekonomia zirkularraren eredu berrian indartzen ari den prozesua" jardunaldia: Telematikoa, urtarrilak 29, 55 bertaratu.
- "Elikagaien transferentzia eta berrikuntza" II. jardunaldia, Miñao, martxoak 25, 83 bertaratu.

- Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa emaitzak transferitzeko XII Jardunaldia, Lakua, apirilak 10, 73 bertaratu.



- Higienea eta fitosanitarioen erabilera Euskadiko nekazaritza-ustategietan ikastaroa, online, 277 bertaratu.
- Higienea elikagaien manipulazioan ikastaroa, telematikoa, urriak 15.

ONTZIHUBaren esparruan, Basque Food Cluster-ekin batera honako ekitaldi hauek antolatu ditugu:

- Ontziei buruzko legeak elikagaien sektoreetan duen eragina aztertzeko mintegiak:
 - Arrantza-sektorea, maiatzak 2, 41 bertaratu.
 - Landare-industria, maiatzak 4, 44 bertaratu.
 - Harakintza-industria, maiatzak 6, 43 bertaratu.
 - Okintza- eta gozogintza-sektorea, irailak 16, 40 bertaratu.
 - Edarien industria, irailak 17, 46 bertaratu.
 - Esnegintza-industria, irailak 18, 36 bertaratu.
- Elikagai-ontzi eta -bilgarrietan berrikuntzak egiteko Euskadiko III. Topaketa, ONTZI, azaroaren 20an Ilgner eraikinean (Barakaldo), 150 bertaratu.

Halaber, ekitaldi horretan 25 euskal enpresari eman zitzaien ontzi jasangarriagoetara egokitze egindako lanaren eta konpromisoaren aitortpena.

Halaber, bi informazio-saio antolatu dira udal-teknikarientzat, abeltzaintza-ustategiak antolatzeko dekretuak argitaratzearekin lotuta:

- EUDELen egoitza, Bilbon (Bizkaia). Azaroak 17, 25 bertaratu.
- GOIZANE zentroa, Zaldibian (Gipuzkoa). Azaroak 20, 18 bertaratu.

Halaber, Euskadiko nekazaritzako elikagaien produktuen hurbileko salmentari buruzko 51/2025 Dekretuaren argitalpenari lotuta, honako formakuntza hauetan parte hartu dugu:

- Landaolak antolatutako jardunaldia, Goizane, otsailak 21.
- RURALTXAk antolatutako jardunaldia, Arkautin, irailak 12.
- ADR IZKIk antolatutako jardunaldia, Kanpezun, urriaren 16ean.

Halaber, maiatzean Bilbao Exhibition Centerren (BEC) egin zen **Food4Future** ekitaldia antolatzen lagundu dugu, eta honako saio hauetan parte hartu dugu:

- Hizlari gisa 2 saioetan: “Packagin jasangarria” eta “Errebalorizazio-irtenbideak, RECIRCULAR plataformaren aurkezpena”, maiatzak 13 eta 14.
- 2 saio moderatzea: “Klima-aldaketa eta elikagaien segurtasuna” eta “Patogenoen kontrola harakintza-industrian”, maiatzak 15.

Hezkuntza-komunitatea prestatzeko, honako jarduketak hauek nabarmentzen dira:

- IES Unamuno BHIko Batxilergoa + programa: Bost ikasle tutorizatzea honako proposamen hauei lotuta: “Elikagaien aurrealdeko etiketa: osasungarria hautatzeko tresna eraginkorra?” eta “Elikadurako publizitate-erakargarriak: elikagaien ontzien analisia”.



- “Origen y Sinergias de los Plaguicidas en los Ecosistemas Apícolas. Caracterización de residuos mediante técnicas de espectrometría de masas” (Plagiziden jatorria eta sinergiak erlezaintzako ekosistemetan. Hondakinak masa-espektrometriako tekniken bidez ezaugarritzea) doktorego tesia zuzentzea. UPV/EHUko Farmazia Fakultatean aurkeztu zen, martxoaren 28an.

Osakidetzarekin lankidetzan, honako formakuntza hau eskaini da:

- Bi hitzaldi Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), ohitura osasungarriei eta elikagaien etiketatzeari buruz: otsailak 5 eta otsailak 26.
- Hiru hitzaldi Basauriko espetxean, osasungarri aukeratzeko etiketa interpretatzeko moduari buruz: Martxoak 19, maiatzak 20 eta urriak 28.



Gainera, Elikako kideok parte hartzeko beste erakunde batzuek antolatutako **jardunaldi edo ikastarotan hizlari eta moderatzaile** gisa gonbidatu gaituzte, honako hauek nabarmendu behar dira:

- AECOCek Madrilen antolatutako **Elikagaien Segurtasunari buruzko Kongresua**. Elikagaien segurtasunaren esparruan kontsumitzaileak duen egitekoari buruzko mahai-inguru batean parte hartu genuen, martxoaren 5ean.
- IHOBek antolatutako Basque Circular Summit ekitaldian. Hizlari gisa parte hartu genuen elikagaiei lotutako ontziei buruzko mahai-inguru batean, apirilaren 2an, Euskalduna Jauregian.
- Ekonomia Zirkularreko masterra (UPV/EHU): Elikadura Jasangarriari buruzko ikasgai magistrala, martxoak 3.
- Elikagaien xahuketari buruzko jardunaldia, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Euskadiko ordezkariaren eskutik. Elikagaien xahuketari lotutako estrategien inguruko mahai-inguru batean parte hartu genuen, maiatzaren 22an.

- Arabako Foru Aldundiak antolatutako Jardunaldia, Arabako Hondakinen Behatokiaren esparruan, Murgian. Elikagaien xahuketaren aurkako Estrategia aurkeztu zen, bai eta diagnostikoaren datuak ere, ekainaren 19an.
- BBK Sasoiko (lan-bizitza amaitzen ari diren eta aktibo jarraitu nahi duten pertsonentzako programa): lehen sektorearen eta landa- eta itsasertz-ingurunearen garrantziari buruzko hitzaldia, urriaren 24an.



- Osasun Bakarrari buruzko Jardunaldia, Bizkaiko Albaitarien Elkargoaren, Bilboko Mediku Zientzien Akademiaren eta Bilboko Gurutze Gorriaren eskutik. Osasun bakarra elikagaien segurtasunerako estrategia gisa gaiari buruzko hitzaldi bat eskaini genuen, azaroaren 20an.

- Europako FUTUREFOODS lankidetzak: Espainian lankidetzak finantzatzeko duten erakundeek antolatutako web-mintegia. Elikadura-sistema jasangarrietako proiektuak finantzatzeko euskal erakundeek dituzten aukerei buruzko hitzaldia, online, abenduaren 15ean.

Azkenik, Pint of Science 2025en batzorde antolatzailean parte hartu dugu. Ekitaldia Gasteizen egin zen, maiatzaren 19an, 20an eta 21ean, eta dibulgazio zientifikoko nazioarteko jaialdi honen batzorde antolatzaileko kide izan gara. Bertan, hainbat gai jorratu ziren, hala nola klima-aldaketa eta nekazaritza, ardi latxaren hobekuntza genetikoak, hartzitutako elikagaiak eta adimen artifiziala.



B.3. Laguntza-baliabideak

Hainbat baliabide garatzen jarraitu dugu, batez ere elikadura-politiken aplikazioa errazteko, sektoreari nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioan aurrera egiten laguntzeko eta elikadura seguruago eta osasungarriagoa lortzeko. Garatu ditugun baliabideen artean honako hauek azpimarratu ditzakegu:

- **LEGISELIKA lege-baliabidea.** Bertan Europa, estatu eta autonomia mailako elikagaien legedi eguneratua kontsultatu daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz. 642 erabiltzaile ditu.
- **Pentsuen arriskuen mapa.** Bertan nahi ez diren gaien mugak kontsultatu daitezke, lehengai, gehigarri edota animaliek jateko pentsu konposatuen kasuan.
- **Online formakuntzarako plataforma:** Euskadiko Nekazaritza Elikakatearen Kontrol Ofizialaren esparruan tresna bat diseinatu eta garatu dugu, nekazaritzako elikakateko operadoreei elikagaien araudian ezarritako eta ikuskapenetan egiaztatu beharreko eskakizunen arloan formakuntza emateko. 2025ean plataforman ikastaro hauek gehitu dira:
 - ✓ Higienea eta fitosanitarioen erabilera Euskadiko nekazaritza-ustategietan.
 - ✓ Higienea elikagaien manipulazioan.



Elikagaien Segurtasunerako Formakuntzarako online Plataforma aurkezteko eta EAEko nekazariei zuzendutako higienari eta fitosanitarioen erabilerari buruzko lehen ikastaroa abian jartzeko, 3 lurralde-topaketa egin ziren EAEko nekazaritza-sektoreko eragile desberdinekin (sindikatuak, NEBak, sektore-elkarteak, kudeaketa-zentroak, kooperatibak, etab.), Araban (2025/02/11), Bizkaian (2025/02/04) eta Gipuzkoan (2025/01/30). Era berean, higiena eta fitosanitarioen erabilerari buruzko ikastaroan erabiltzaileek ikastaroaren edukiaren inguruan dituzten **zalantzak argitzeko txat bat dago** (zalantza nagusiak gai hauei buruzkoak izan dira: fitosanitarioen erabilera, fitosanitarioak aplikatzeko txartela eskuratzea eta etiketatzea ustategian).

C) Informazioa eta komunikazioa zabaltzea

Gure xedea euskal gizartea ahalduntzea da, elikagaien inguruko erabakiak har ditzan. Horretarako, **ezagutza teknikoa sektorera eta administrazioa egokitu** dugu eta kontsumitzaileei zuzendutako elikadura-pedagogikoko estrategia sortu dugu.

Horretarako, gure zaintza teknologikoko sistemaren bidez, elikadura seguruari, osasungarriari eta jasangarriari buruzko informazio guztia bildu eta zabaltzen dugu, gure plataforma eta informazio-sareen bidez, jarraian zehazten dugun moduan:

C.1. Informazio-materiala

2025ean gure webgunean elikagaien segurtasunari eta elikadura osasungarriari eta jasangarriari buruzko **121 albiste** argitaratu ditugu, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, animalien elikadura eta elikagaien industria-sektoreei zuzenduta. Ia egunero eguneratzen dugu webguneko informazioa eta hilabeteen batez bestez 10-12 albiste argitaratzen ditugu.


Bestalde, 72 informazio-material sortu ditugu (artikuluak, infografiak, posterrak, bideoak, etab.), eta honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- **Animalia-gaixotasunei buruzko fitxa teknikoak:** 2 fitxa berri (hausnarkari txikien izurria eta hidatidosia).
- **Elikadura-arriskuei buruzko fitxa teknikoak:** Fitxa berri bat egitea (Nitrosaminak) eta 6 fitxa eguneratzea.

- **Arriskuei buruzko infografiak:** Elikadura-arriskuei buruzko 3 infograma berri egitea: nitrosaminak, akrilamida eta sulfitoak.
- **Alertei buruzko txostenak:** Lauhileko bakoitzeko 6 txosten, pentsu eta elikagaien alerta-sareen jakinarazpenei (RASFF) buruzkoa, eta alerta horiek jasotzeko urtean 2 txosten.
- **Kontsumitzailea webgunerako artikulua:** webgunean argitaratuta dauden 9 artikulua berrikustea eta 7 artikulua berri egitea:
 - Ur-botila berrerabilgarriak
 - Airfryerra al da janariak prestatzeko modurik osasungarriena?
 - Zer da nekazaritza bertikala?
 - Nola garbitu frutak eta barazkiak
 - Zartaginak eta sustantzia perfluoralkilatuak (PFA)
 - Elikagai gehigarrien erreakzio kaltegarriak
 - Gutxi prozesatutako elikagaiak eta ultraprozesatuak
- **Mantenugaiei buruzko infogramak:** 2 material berri
 - Gantz aseak eta trans gantzak
 - Zuntza



- Eskuorriak eta kartelak:
 - Frutak eta barazkiak garbitzea
 - Hirietako parkeetan hegazti-gripea prebenitzeko kartela
 - Bisita zoosanitarioei buruzko informazio-orria.
 - Dermatosi nodular kutsakorrari buruzko triptikoa
 - Pinu zuraren nematodoari buruzko eskuorria.
 - Euskadiko abeltzaintza-ustiategiak antolatzen 50/2025 Dekretu berria.
 - Erlezaintza-antolamenduko dekretu berria.



● Bideoak elkarrizketa formatuan EITB Sukalerrian programarako:

- Elikagaiak nola gorde hozkailuan
- Listeriagatiko toxiinfekzioak ekiditea
- Gutxi egindako hanburesak
- Nola irakurri etiketak
- Salmonella arriskua elikagaietan
- Gertuko elikagaiak hautatzeko arrazoiak

ONTZI proiektuaren esparruan, ontzien araudi berria ezartzeari buruzko **6 infografia** egin dira, sektore hauei zuzenduta: arrantza-sektorea, landare-industria, harakintza-industria, okintza- eta gozogintza-sektorea, edarien industria eta esnegintza-industria.



Elikagaien xahuketaren aurkako euskal estrategiaren esparruan, “JANARIA EZ DA BOTATZEN 2025” kanpaina antolatu da jantoki kolektiboetara erreparatuz, eta honako material hauek prestatu dira:

- “Etxean elikagaien xahuketa murrizteko gida” zabalgarria
- Sektoreari zein herritarrei zuzendutako kartelak
- Imana
- Ontziak
- Pegatinak
- Table Tent
- Totebag-ak
- Ur-pitxerrak



Halaber, **Gabonei** begira, euskal gizartea elikagaien xahuketaren inguruan kontzientziazteko **kanpaina** bat argitaratu da. Oraingoan, aholkuek etxean alferrik galtzearen kausa nagusia izan dute xede, hots, plateretan uzten diren soberakinak. Gida bat egin da, eta 8 aholku, sare sozialetarako 6 bideo eta irratirako 6 iragarki prestatu dira..



Azkenik, hilabetero “**ELIKABerri**” buletina editatzen dugu. Bertan azken hilabeteen argitaratutako elikagaien segurtasunari eta elikadura osasungarri eta jasangarriari buruzko informazio garrantzitsua biltzen da, datozen ekitaldiekin batera. Gaur egun, **730 erabiltzaile** izena emanda daude aldizkari horretan, eta, oro har, 2024ko azaroan 9,14 puntuko balioespena izan du.


C.2. Webgunea

Gure webgunean eskuragarri dagoen informazioa hobetzen jarraitzen dugu, antolaketa, formatua eta edukiari dagokionez.

2025ean, gure webgunea osorik berritzeko lan egin dugu, eta aurreko webguneak zituen hamaika domeinuak domeinu bakarrean batu ditugu. Eguneraketa horri esker, baliabideak optimizatu ditugu, edukiak editatzea erraztu eta erabiltzailearen esperientzia hobetu dezakegu.

2026aren hasieran webgune berria argitaratzen denetik aurrera, edukiak eskuragarriago egongo dira bilatzailearen bidez, nabigazio-menuak errazagoak izango dira, eta garrantzitsuena, Wordpresseko edizio-sisteman etorkizunean egin daitezkeen aldaketetara hobeto egokituta egongo da; hortaz, edizio-sistema kudeatzeko kanpoko enpresekiko mendekotasun txikiagoa izango da.

Domeinuak bateratzeak paradigma-aldaketa garrantzitsua ekarri du, eta, horren ondorioz, webgune osoaren edukia osorik berrikusi behar izan da.



ELIKAre webguneek, 2025. urtean, guztira 252.225 erabiltzaile izan dituzte, eta guztira 452.416 orri ikusi dira. Euskadiko erabiltzaileek ikusitako orrien ehunekoa % 10ekoa da osoaren gainean.

Gainera, dibulgatzaileagoak diren beste formatu batzuk ditugu, Elikagaien Segurtasunaren arloko informazioa herritarrei helarazteko, hala nola kontsumitzaileen webgunea eta Wiki-Elika, elikadurari eta nutrizioari buruzko terminoak biltzen dituen.

C.3. Sare sozialak

Badakigu sare sozialetan presente egotea garrantzitsua dela, eta horregatik profila dugu Facebook, Twitter, LinkedIn e Instagram sareetan. Bertan elikagaien segurtasunari eta elikadura osasungarriari eta jasangarriari buruzko informazioa eta albisteak zabaltzen ditugu. Youtubeko profila ere badugu eta noizean behin bideoak argitaratzen ditugu. Sare sozialetako bost profiletan 23.560 erabiltzaile ditugu guztira.

C.4. Presentzia komunikabideetan

2025ean, ELIKAk komunikabideetan 75 inpaktu izan ditu. Nabarmentzekoa da prentsan, irratan eta telebistan izandako agerpena.

Telebistari dagokionez, eta Euskal Telebistako "A Bocados" eta "Joseba Argiñano Sukalerrian" saioekin egindako lanari esker, Elikako teknikariak 17 aldiz agertu dira telebistan elikadura-segurtasunari buruzko gaiei buruz hitz egiten.



Gainera, irratan 13 elkarrizketatan parte hartu da (Radio Euskadi, Radio Vitoria, Onda Cero...), arriskuen prebentzioa jorratzeko (anisakis, gutxi egindako haragia), elikagaien

xahuketaren aurkako kanpainak lantzeko, formakuntza-plataforma abiaraztea, edo ontzien eta erlezaintza-antolamenduari buruzko araudia indarrean sartzeari buruz.

Gai horiekin, ELIKA 18 aldiz agertu da idatzizko prentsan.



Halaber, podcast bat grabatu dugu Gominolas de Petr leo blogarentzat, elikagaien segurtasunaren arloko zenbait gai buruzkoa, eta gaur-gaurkoz kapitulu hori 765 aldiz erreproduzitu da.



Azkenik, ELIKA 22 aldiz aipatu da lineako prentsen webguneetan edo erreferentziazko beste webgune mota batzuetan, hala nola Consumer.es, SPRI, AECOC o Kontsumobide.

3. Dimentsio ekonomikoa

a. Balioa handitzea

ELIKAn konpromiso sendoa dugu egiten ditugun jardueren eta zerbitzuen balioa handitzeko, eta, ondorioz, ematen dizkiguten baliabideak interes-taldeetara eta, bereziki, gizartera itzultzeko.

Gure lana gardentasun osoz egiten saiatzen gara eta Fundazioan ikuskatutako datu ekonomiko guztiak publiko egiten ditugu. Gainera, laneko baliabideak kudeatzeko eraginkortasuna bilatuz, ahalik eta onura gehien eskuratzea eta kontrolatzea ahalbidetzen duten tresnak erabiltzen ditugu.

Aurreko urteetan lortutako informazio-gardentasuna indartzea azpimarratzen dugu. Gardentasun-ataria dugu eta gure webgunean zuzeneko sarbidea dago. www.elika.eus

b. Eraitzen balantzea eta kontua

Urtero, ELIKAk talde kudeatzaileak Jardueren Plana aurkeztendu, eta Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailak aurrekontua ematen dio. 2025erako hasierako aurrekontua 890.000,00 eurokoa izan zen dirulaguntza ofizialerako, eta 200.000,00 eurokoa elikagaien xahuketari aurka egiteko estrategiarako; biak batuz jasotako dirulaguntza osoa 1.090.000,00 eurokoa izan da. 2024 eta 2025erako, urteko 125.000 euro gorde dira, Europako FutureFoods lankidetzaren esparruan euskal entitateen proiektuak kofinantatzeko; Elikak lankidetzaren horretan parte hartzen du, Eusko Jaurlaritza ordezkatzuz.

Halaber, 55.000 euroko aurrekontu-aldaketa bat eskatu zen, ONTZI proiektuari aurre egiteko. Proiektu horren helburua da Estatuan eta Europan ontzien eta bilgarrien arloan onartu den araudi berriaren eskakizunei erantzutea.

Aurrekontu horri esker Patronatuak onartutako Urteko Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduerak egiten dira. Eliko Fundazioa gardena da; hileko gastuaren jarraipena egiten du hilero, eta ondoren Eusko Jaurlaritzari bidaltzen zaio. Gainera, datu ekonomiko guztiak gure webgunean argitaratzen ditugu eta urtero ikuskaritza independente bat egiten dugu. Ikuskaritzaren txosten osoa gure webgunean argitaratzen da.

Jarraian aurkeztu den 2025ean ikuskatutako kontuen balantzea eta iazko urtearekiko alderaketa:

AKTIBOA	Oharrak	2025/12/31	2024/12/31
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		0	0
I.- <u>Ibilgetu ukiezina</u>	5	<u>0</u>	<u>0</u>
Aplikazio informatikoak		0	0
III.- <u>Ibilgetu materiala</u>	6	<u>0</u>	<u>0</u>
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala		0	0
B) AKTIBO KORRONTEA		452.876	518.419
IV.- <u>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</u>	8	<u>185</u>	<u>7.603</u>
Hainbat zordun		185	7.603
VIII.- <u>Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioki deak</u>		452.691	510.816
Diruzaintza		452.691	510.816
AKTIBOA GUZTIRA		452.876	518.419

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharrak	2025/12/31	2024/12/31
A) ONDARE GARBIA		301.475	301.475
A-1) Fondo propioak	9	301.475	301.475
I.- <u>Sorrerako zuzkidura</u>		486.668	<u>486.668</u>
II.- <u>Erreserbak</u>		<u>6.800</u>	<u>6.800</u>
III.- <u>Aurreko ekitaldietako emaitzak</u>		(191.993)	(191.993)
IV.- <u>Ekitaldi soberakina</u>		<u>0</u>	<u>0</u>
C) PASIBO KORRONTEA		151.401	216.944
III.- <u>Epe laburreko zorrak</u>	8	<u>15.802</u>	<u>109.643</u>
Kreditu-erakundeekiko zorrak		4.523	3.889
Bestelako pasibo finantzarioak	11.1	11.279	105.754
VI.- <u>Hartzeko dunt komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</u>	8	<u>135.599</u>	<u>107.301</u>
Hornitzaileak		67.067	56.342
Pertsonala (ordaintzeko dauden lantzeriak)		17.745	3.481
Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	10.1	50.787	47.478
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		452.876	518.419

4. Dimentsio soziala

a. Aritu-taldea

Pertsonak dira ELIKAKo politikaren ardatz Nagusia. Horregatik pertsonen kudeaketarako hainbat ardatz hartzen ditugu kontuan: familia eta lana bateragarri egitea, aukera-berdintasuna, lan-hazkundea sustatzea eta laneko osasuna eta segurtasuna.

Gaur egun ELIKAKo pertsona-taldea eremu desberdineko hamar profesional osatzen dute (elikagaien teknologia, biologia, albaitaritza, agronomia-ingeniaritza, enpresen administrazioa eta zuzendaritza eta zuzenbidea). Langile guztiek dute esperientzia handia elikagaien segurtasunean, elikakateko maila guztietan. Aurten hautaketa-prozesua egin dugu bitarteko langile batek betetzen zuen plaza bat egonkortzeko. Prozesu horren ostean, pertsona bat hautatu da, 2025. urtea plaza finko guztiak estalita hasteko.

Hurrengo taulan Fundazioan lan egiten duten pertsonen buruzko informazio orokorra ikusi daiteke:

ADINA	35-49 urte	5
	50-55 urte	5
GENEROA	Gizonak	3
	Emakumeak	7
IKASKETA-MAILA	Goi-mailako tituludunak	10
KATEGORIA PROFESIONALA	Zuzendariak	1
	Teknikariak	9
	Administrariak	0
ANTZINATASUNA	Zaharrena	24 urte
	Batez bestekoa	15 urte
KONTRATU MOTAK	Mugagabea	% 100
	Mugagabeak ordezkatzeko	% 0
PLANTILLAKO TXANDAKATZEA	Altak	0
	Bajak	0

Gure langileekiko lan- eta giza-konpromiso irmoa dugu. Une oro pertsonen gogobetetzea areagotzea dugu helburu, eta horretarako aurrera eramaten ditugu proiektu berritzaileen dinamizazioa, fundazioako pertsona guztien formakuntza eta gaitasunak garatzea.

2025ean Elikako langileek **77 formakuntza- eta gaitasun-jarduera** egin dituzte gaitasun teknikoetan eta giza gaitasunetan eta pertsonen artekoetan. Batez bestez **pertsona bakoitzak 45 formakuntza-ordu** egin ditu.

FORMAKUNTZA	2023	2024	2025
Formakuntza jasotzen duten langileen %	100	100	100
Formakuntza-orduak guztira	170	366	412
Pertsona bakoitzeko formakuntza-orduak	19	40	45
Formakuntzaren eraginkortasunari buruzko balorazio globala (100 puntu guztira)	78,4	8,01	7,40

ELIKAKo langileen **lan-baldintzak** urtero finkatzen dira hitzarmen kolektibo propioaren bidez 2023-2024 urteetarako, eta langile guztiei eragiten die. Hitzarmena urtero eguneratzen da automatikoki, aldeetako batek behar bezala salatzen ez badu.

2025ean Elikako **langileen gastuetarako** erakundearen aurrekontu osoaren % **57a** erabili da.

LANGILEEN GASTUAK	2023	2024	2025
ELIKAKO langileen gastuak	666.920	717.799	728.151
Gastu totalaren %	%62	%63	%57

Laneko osasun eta segurtasun baldintza bereziak bermatzeko, bereziki laneko arriskuei dagokionez, **Laneko Arriskuen Prebentzio Plana** (PRL) egin dugu, eta horretarako prebentziorako kanpoko zerbitzu baten laguntza jaso dugu. Gainera, osasun-zainketa zerbitzua dugu, eta horri esker pertsona guztiek osasun-azterketa bat egin behar dute urtero, horrela nahi badute.

LANGILEAK ETA LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOA	2023	2024	2025
Laneko arriskuen prebentzioaren arloan (oinarizko maila) formakuntza duten langileen %	100	100	100
Osasunaren eta segurtasunaren arloan egindako inbertsioa	2.965,59€	3.223,19€	3.412,19€

Era berean, gure kode etikoa eguneratzeko prozesuan gaude. Bertan lan-arloko pertsonen arteko harremanetarako balioak sustatzen dira, informazioa eman eta zabaltzeko eta interes-taldeekin izan beharreko harremanetakoak.

Pertsonak kudeatzeko sistemak Euskaliten sari bat jaso zuen 2021ean, eta, zehazki, Pertsonen Kudeaketa Aurreratuaren Euskadiko Saria “pertsonak eta talentua, gure asmakizun onena” izeneko *role model* praktikan, honako hauek azpimarratzen: lidergo partekatua, pertsona guztien inplikazio osoa erakundearen estrategian eta langileen motibazio-maila handia.

b. Gizartea eta ingurunea

2025ean gizartearekiko konpromisoarekin aurrera egin dugu. Gure **erakunde-kulturaren** oinarriak kudeaketa eraginkorra, arduratsua eta gardena dira.

ELIKA, erakunde publikoa den heinean, zerbitzurako bokazioa du. Horren erakusgarri dira inguruneari eta gizarteari onura ekartzen dioten honako **gaitasun giltzarri** hauek:

- Gure erakunde-kultura.
- Jakintza sozializatzea.
- Elkartasuna.
- Eredugarritasuna.
- Ingurunearekiko konpromisoa.

Erakunde aurreratua gara, eta, hortaz, gure **ingurune soziala** (kokatzen eta elkarren artean erlazionatzen garen eremua) osatzen duten entitateen garapena garrantzitsua da. Hortaz, aktiboki parte hartu nahi dugu gure gaitasunekin bat etorritik lan soziala eraginkorragoa egin dezakegun jardueretan.

Testuinguru honetan, gure esperientzia partekatzen dugu beste erakunde batzuei haien kudeaketan laguntzeko. 2025ean, hainbat aldiz informazioa eta gure kudeaketa-ereduak beste erakunde batzuei eman diegu.

Gizartearekiko dugun konpromisoa haratago eramanda, **jakintza sozializatzen** dugu, barruan eta kanpoan. Gure webgunearen eta sare sozialen bitartez hedatzen dugu, eta, era berean, gaurkotasuneko gaiei buruzko formakuntzak eta jardunaldiak antolatzen ditugu, eta formakuntza-materialak sortzen ditugu elikagaien segurtasunari lotutako hainbat alderdi zabaltzeko, bai profesionalentzat, bai gizartearentzat, oro har.

Gainera, gure webguneko edukiak **WIS** (Interes sanitarioko webgunea) egiaztatgiri lortu dute. Egiaztatgiri hau webgunearen edukia egiazkoa eta kalitatezkoa dela ziurtatzen du. 2025ean egiaztatgiri hau berritu dugu.

Berdintasunarekiko konpromiso irmoa daukagu, eta, horregatik parte hartzen dugu Berdintasunaren aldeko Erakunde Publikoen Sarean eta Arkautiko Nekazaritzako Elikagaien Campuseko Berdintasun Foroan Alde horretatik, parte hartu dugu martxoaren 8ari, otsailaren 11ri (Zientziako Emakume eta Nesken Eguna) eta azaroaren 25ari (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna) buruzko ekitaldietan, eta gure gaitzespena adierazi dugu sare sozialetako argitalpenetan. Baita ere, Hazi eta Neikerrekin batera, parte hartu dugu aniztasunean eta genero-ikuspegian oinarritutako lidergoari eta harreman-adimenari buruzko aholkularitza batean. Formakuntza 2024ko hirugarren hiruhilekoan hasi zen, eta 2025eko lehenengo hiruhilekoan ere luzatuko da, eta jarraipena Maitena Salinas-ek egingo du, Komunikazio eta Lidergoko kazetari eta aholkulariak.



Euskalduntzeari dagokionez, gure erakundeak % 90eko potentziala du euskararen erabileran. Euskara erabiltzen duten taldeak edo inguruneak ditugu eta Euskaraldian parte hartu ohi dugu. 2025ean euskaraz osorik egin dira ponentzien % 5a eta osorik erantzun dira eskaeren % 23a. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako taldeetan ere parte hartzen dugu, erakunde publikoen hizkuntza-irizpideen ezarpena berrikusteko.



Azkenik, ETB1eko Sukalherrian saioan parte hartzen hasi gara, eta bertan egiten ditugun elkarrizketak oso-osorik euskaraz daude.

Datuak babesteari buruzko Europako erregelamendu berrira egokitzeari dagokionez (**Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra**), gai horri buruzko egungo araudia betetzeko hobekuntzak ezartzen jarraitzen dugu. Horretarako, aurten Pribatutasun Batzordearekin hiruhilekoko jarraipen-bilerak egiten jarraitu dugu.

Compliance Penalari dagokionez, aholkularitza espezializatu baten laguntzaz iaz egin genuen azterketa ikusita, hobekuntza posibletzat jo dugu Erakundearen Kode Etikoa eguneratzea.

Azkenik, 2025. urte honetan, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskal Kontsumorako 2025 Euskadi Saria eman digu, 2. kategorian. Sari hori kontsumo arduratsua sustatzen duten «enpresa-jardunbide egokiei» ematen zaie, zehazki elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformari.



5. Ingurumen-dimentsioa

a. Ingurumenarekiko konpromisoa

ELIKAKo Ingurumen-politikak bi oinarri ditu:

- **Gure jardueren ingurumen-eragina gutxitzea.** Horretarako gure prozesuetarako baliabide naturalen, energia-baliabideen eta lehengaien kontsumoa gutxitu dugu eta hondakin gutxiago produzitu ditugu.
- **Informazio, formakuntza eta lan-giro egokia eskaintzea,** gure langileak erakundearen ingurumen-helburuak lortzeko prozesuan parte har dezaten.

ELIKAKo jarduerak ez du eragin handirik ingurunean, baina hondakinak sortzen ditugunez ahalik eta gehien murrizten eta ahal den guztietan berrerabiltzeko eta birziklatzeko praktikak aplikatzen saiatzen gara.

“Erosketa berdea” irizpideak ere baditugu, ingurunearekiko arduratsuak diren hornitzaileak eta birziklatutako produktuak lortzeko. Horretarako **eredu** izaten saiatzen gara eta gure hornitzaileei eskatzen diegu kontratazio agirietako baldintzak bete ditzaten. Horrela, guk egiten dugun bezala **ingurumenarekiko konpromisoa** agertzeko eta legeria, langileen eskubideak, giza eskubideak eta haurren eskubideak urratzen ez dituztela bermatzeko.

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako irizpideak txertatu ditugu, hala nola martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren 22.1 artikulua.

b. Ingurumen-jarduna

ELIKAKo egoitza Arkautiko Parke Teknologikoan kokatuta dago. Bertan hondakinen gaikako bilketa egiten da, eta, horri esker, kasu hauetan 'ziklo garbi' gomendagarriena betetzen dela bermatzen da.

Baliabideen (ura eta energia, adibidez) kontsumoa kontrolatzen eta arrazionalizatzen dugu. Orain dela urte batzuk berokuntza sistemako galdara aldatu eta biomasako galdara jarri zen. Harrezkeroztik Euskadiko zura erabiltzen da bulegoak neguan zehar berotzeko. Ordenagailu pantailak LED motakoak dira orain, eta horrela elektrizitate-kontsumoa murriztea lortu dugu.

Halaber, Arkautiko Parke Teknologikoan energia sortzeko instalazio agrovoltaiko bat dugu, eta horrek eragin positiboa du energiaren gastuan.

Arkautiko Parke Teknologikoa energia berriztagarrietara etengabe egokitzearen ondorioz, esan dezakegu 2025. urtean energia berriztagarrien ratioa % 40tik gorakoa dela, eta, hortaz, 2030 Agendan ezarritakoa gainditzen du. Horregatik guztiagatik, oro har, ingurumen-inpaktua murriztu dugu, eta, horrela, jasangarriagoak gara instalazioei dagokienez.

Paperaren kontsumoari dagokionez, erabiltzen ditugu orrien gramajea aldatu dugu (80 g izatetik 75 g izatera). Gainera, paperean egindako argitalpen kopurua murriztu dugu (digitalak dira orain), eta baita jardunaldietan edo ikastaroetan banatzen dugun materiala ere. Paperaren kontsumoa murrizteko inprimatze-jardunbide egokiak ere jarraitzen ditugu,

eta inprimatzeko ekipo eraginkorra erosi dugu. Horri esker toner-kontsumo txikiagoa lortu dugu.

Ingurumenarekiko dugun konpromisoa hobetu ahal izateko, gure eguneroko jardunean iaz bildutako ideiak aplikatzen jarraitzen dugu, besteak beste, honako hauek:

- Teknologia erostean, gailu berregokituak aukeratzea.
- Birziklatutako papera erabiltzea barneko dokumentuetan.
- Behin erabiltzeko bulegoko materiala ekiditea.

6. Etorkizuneko erronkak

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Euskadin elikadura-politikak zabaltzeko eta zehazteko elementu erabilgarriak eta beharrezkoa izatea.
- Elikagaien segurtasunaren kultura txertatzea eta sektoreari laguntzea nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioan.
- Euskal gizartea ahalduntzea elikagaien inguruan erabakiak hartzeko.
- Antolaketa-eredu diferentzial aurreratua eta berritzailea sustatzea.

HELBURU EKONOMIKOAK

- Gure produktuen eta zerbitzuen balioa handitzea gizarteari ematen dizkigun baliabideak bueltatzeko.
- Gutxieneko ezinbesteko finantzaketa finkatzea.
- Ingurune sozioekonomiko aldakor batera egokitzeko gaitasuna mantentzea.
- Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean cash flow positiboa mantentzea.

HELBURU SOZIALAK

- Elikadurari buruzko informazio-edukiak zabaltzea eta zabaldutako informazioaren kalitatea mantentzea.
- Fundazioko langileak zaintzea jarduketa hauen bidez: lan-hazkundea sustatzea, laneko osasuna eta segurtasuna, aukera berdintasuna eta familia eta lana bateragarri egitea.
- Berdintasunari eta euskararen erabilerari lotutako politikak ezartzen jarraitzea.
- Lortu dugun interes taldeen aintzatespen maila mantentzea.

INGURUMEN HELBURUAK

- Gure jardueren ingurumen-eragina gutxitzea.
- Elektrizitate-, ur- eta paper-kontsumoak gutxitzea.
- Lekualdatzek eragindako isuriak gutxitzea.
- Erosketa berdeko irizpideak erabiltzea eta gure hornitzaileei ingurumen-ardura eskatzea.

